

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
NEREA YEREGUI BALDA
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko martxoaren 25ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ager den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-02-26KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2025-02-26ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Miren Koruko Aranberri Eizagirre

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko otsailaren 27an, 11/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Miren Koruko Aranberri Eizagirrek Beteluko 1. Poligonoko 57. Partzelan dagoen Etxaburua 2. Ezkerreko etxeko balkoian aire egokituaren motorra jartzeko egindako hirigintza baimen eskaera dela eta eskaera argitzeko errekerimendua.

2. Maria Josefa Apalauza Echarri

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko martxoaren 6an, 12/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Mari Josefa Apalauza Echarrik Beteluko 1. Poligonoko 35. Lursailean dagoen Gure Etxearen fatxada margotzeari buruz egindako eskaerari buruz dokumentazioa osatzeko errekerimendua.

3. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko martxoaren 7an, 13/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzeko agintzea.

3. "ESKOLA ZAHARRA" ERAIKINAREN ERABILERA DOAN LAGATZEA

Beteluko Udaleko Kudeaketa Batzordeak mila bederatziehun eta laurogeita hamabosteko ekainaren hamahiruan egindako bilkuran erabaki zuen Zigariren eskaera onartzea. Eskaera horren bidez, Beteluko "Eskola Zaharrak" eraikina lagatzeko eskatu zuen. Lagapenak baldintza hauek bete behar zituen:

- 1. Elkartea Betelun erroldatuta dagoen pertsona ororentzat irekia izan beharko da.*
- 2. Udalari estatutuen ale bat eman beharko diote, ofizialki onartzen diren unean.*
- 3. Epe mugagaberako lagatzen da, eta Udalari itzuliko zaio eratzean aurreikusitako helburua aldatzen bada.*
- 4. Une jakin batean Udalak lokala erabili behar badu Udalaren egintza zehatz baterako, lokal hori Udalaren esku utzi beharko da egintza zehatz horretarako.*

Nafarroako Toki Entitateen ondasunen erregelamendua onartzen duen 280/1990 Foru Dekretuaren 117.3 artikulua arabera baina, higiezinen erabileraren debaldeko lagapena 20 urtekoa izan daiteke gehienez ere.

Artikulu hori kontuan harturik, egoera erregularizatzeko beharra dago eraikina Zigari Elkartek erabiltzen jarraitzen baitu. Hori dela eta, udalbatzak aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Irabazi asmorik gabeko Zigari Elkarteari Beteluko 2. Poligonoko 93. Lursailean dagoen eraikinaren (eskola zaharra) erabileraren debaldeko lagapena egitea. Lagapena ondoko baldintzekin egin da:

- Lagapenaren iraupena akordio hau hartu den datatik hasita 20 urtekoa izatea.
- Lagapenak lehenengo pisuari eta beheko plantaren %50ari eragiten dio. Beheko plantaren gainerako %50a beraz, Beteluko Udalak erabiliko du.
- Eraikinaren edozein obra, mantenimenduzkoa edo berrinkuntzakoa izan, Zigari Elkarteari dagokio eraikinaren erabileraren portzentaian.
- Une jakin batean Udalak lokala erabili behar badu herriko egintza baterako, lokal hori Udalaren esku utzi beharko da egintza jakin horretarako. Beteluko

- Udalak aldeaz aurretik jakinarazi beharko dio Zigari Elkarteari egintza horren berri.
- Zigari Elkarteari xedea aldatuko balitz erabilera Beteluko Udalera itzuliko zaio.

BIGARRENA: Akordio hau Zigari Elkarteari jakinaraztea.

4. BETELUKO KIROL ELKARTEEI LAGUNTZA

Araxes Herri Kirol taldeak diru laguntza eskaera egin du 2025eko martxoaren 10ean Beteluko Udalean aurkeztutako idatzian.

Beteluko Udaleko 2025. Ekitaldiko aurrekontuan 1 3410 4820002 "Beteluko kirol elkarteei laguntza" partida aurreikusten da 3.500 euroko kredituarekin.

Hau dena ikusirik, udalbatzak aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Araxes herri kirol taldeari 1.500 euroko dirulaguntza ematea goian aipatutako partidaren kargura.

BIGARRENA: Beteluko futbol taldeari 1.500 euroko dirulaguntza ematea goian aipatutako partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Akordio hau Araxes herri kirol taldeari eta Beteluko futbol taldeari jakinaraztea.

5. JASOTAKO IDATZIAK

1. – Nafarroa Oinez

2025. urteko Nafarroa Oinez edizioa antolatzeke dirulaguntza eskaera egin du Paz de Ziganda ikastolak. Honen aurrean aho batez ZERA ONARTU DA:

270 euroko dirulaguntza ematea Paz de Ziganda Ikastolari.

2. Ehige

Ehige konfederazioak 2025eko ekainaren 1ean Urduñan ospatuko duen Euskal Eskola Publikoaren 32. Jaia antolatzeke dirulaguntza eskaera egin du.

Honen aurrean, aho batez, zera onartu da:

Dirulaguntzarik ez ematea udal aurrekontuaren mugapenengatik.

6. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Nilsa	F. 66/25	56,95 €

Nilsa	F. 67/25	56,95 €
Nilsa	F. 68/25	56,95 €
Nilsa	F. 69/25	56,95 €
Animsa	F. SCA 67	949,62 €
Iberdrola	F. Urberoa	6,97 €
Venus Campos Walsh	F. DFA 39	2.833,41 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A4/2025	90 €
Rekalde Zurgindegia	F. 737-25 eskolako lanak	185,12 €
Repsol	F. 25/4 gasoila	81,30 €
Wikai	F. 1/2890	112,10 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 7/2025	62,92 €
Codisna	F. 25.077	199,65 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoaq	531,69 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	9,80 €
Iberdrola	F. Argiztapen publikoa	1.034,37 €
Vizcaina petroleros	F. eskolako gasoila	3.139,95 €
Idm medical	F. otsaileko mentenua	131,07 €
Goiener	F. eskolako argia otsaila	1.486,26 €
Goiener	F. udaletxeko argia otsaila	1.384,83 €
Geserlocal	F.137	837,44 €
Suministros Moncayo	F. eskolako suteen aurkako instalakuntza	750,59 €
Baiza Motor	F.I25/480	8,22 €
Jesus M ^a Alcasena	F. 23	269,83 €
Iñaki Eraso Ochotorena	F. 28	392,04 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1055 otsaileko mugikortasuna	129,40 €
Cederna Garalur	F. Mendialdeko elikadura 2025 kuota	1.757,71 €
Animsa	F. SCA 153	315 €
Congost	F. 25/73048	631,62 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 13/2025	125,84 €
Ofico	F. F251214	118,71 €
Brico Depot	F. 4950	270,76 €
Grup Viada Mataro	F. B450073	1.948,10 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Maite Garcia Satrustegui	F. otsaileko menuak	877,50 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. otsaileko janaria	60,28 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. otsaileko garbiketa produktuak	21,30 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A6/2025	42,90 €
	DENETARA:	21.024,10 €

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte. Jesus M^a Alcasenaren faktura Araizko Udalarekin erdina eginen da.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuaren inguruko akordioa sartzeko eskatu du: "Balorazio ponentzia eguneratzeko prozedura hastea".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: 2025eko maiatzaren 1 baino lehen ez bada balorazio ponentziaren eguneratzeko prozedura hasteko akordioa Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiko Departamentuaren ekonomia eta finantza atalera bidaltzen, Nafarroako Gobernuak emandako tranferentzia arrunten funtsaren %10eko murrizketa eginen dute.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guztien aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

7. BALORAZIO PONENTZIA EGUNERATZEKO PROZEDURA HASTEA

Tranferentzia Arrunten Funtsa arautzen duen martxoaren 22ko 7/2022 Foru Legearen 20. artikulua arabera, balorazio-ponentzia eguneratua ez duten edo, indarreko legeriaren arabera, berrikuspen-prozesua hasi ez duten udalerriek % 10 gutxituko zaie funtsaren zenbatekoa.

Bestalde, Nafarroako Lurralde Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 35. artikulua ezartzen du katastroko balioak eguneratu egin behar direla, onartu edo berrikusi zirenetik 5 urte igaro direnean.

Beteluko Udalaren azken balorazio txostena 2019ko irailaren 11n onartu zenez, Osoko Bilkurak aho batez erabaki du

Lehenengoa.- Balorazio-ponentzia eguneratzeko prozedura hastea.

Bigarrena. - Akordio honen berri ematea Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuko Ekonomia eta Finantza Kudeaketako Atalari.

8. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak laurden gutxi direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.